



Portuko Agintaritzak eta Bilboko Portuko ezinbesteko zerbitzuek beren aktibitate erritmoa mantentzen dute hornidura bermatzeko

Konfinamendu lehen aste honetan, Bilboko Portuan ez dira eten industria eta herritarrei zerbitzua eta hornidura emateko salgaiak garraiatzen dituzten itsasontzien sartze eta irteerak. Langile guztiei prebentzio neurriak aplikatuz, Bilboko Portuko Agintaritzak bermatzen du, itsasontziei ezinbesteko zerbitzuak ohiko erritmoan ematen jarraitzen zaiela hornikuntza katea ez apurtzeko. Bai Portuko Agintaritzak bai portuko gidariek, atoiotziak, amarradoreek, marpol eta salgaiak manipulatzeko zerbitzuek (zama) ere, euren lana egiten jarraitzen dute, Euskadiko eta bere eragin-aldeko produktuen inportazioa eta esportazioa mantentzeko.

Halaber, zabalik daude portu-gunerako sarbideak eta bertan sartzeko ohiko kontrola, eta portuko-polizia zerbitzuak eta larrialdien kontrol zentroa lanean daude eguneko 24 orduetan.

Portuak funtsezkoak dira banaketa katean, euretatik zehar Espainiako inportazioen ehuneko 85a eta esportazioen ehuneko 55a sartu eta irteten direlako. Bilboko Portuak bakarrik, 9.000 lanpostu mantentzen ditu eta Euskadiko BPGaren %1,3 eta Bizkaikoaren %2,6a adierazten du.